Bingen Saitua manifiesta que es triste tener que presentar esta moción y opina que al Estado le interesa mantenerse en situaciones de confrontación por diferentes razones y que teme la normalización política. Le parece esperanzador la colaboración con otras fuerzas políticas para trabajar por la normalización política en Euskal Herria pero critica la dejación del PNV y del Alcalde que manifiesta que se solidarizan con todos las victimas y sin embargo, hace un mes han detenido a un vecino que posteriormente ha sido puesto en libertad con limitaciones y sobre esta situación el Alcalde no ha hecho ningún pronunciamiento ni ningún corporativo del Equipo de Gobierno ha participado en las movilizaciones a favor del vecino detenido. Critica también la actuación de la Ertzaintza en algunas manifestaciones en las que han cargado contra las personas que defienden los derechos de los presos arropando las políticas de los agresores. Finaliza indicando que BILDU tiene claro que es preciso realizar una revisión crítica del pasado para lograr una sociedad en paz pero esta labor no la debe realizar solamente BILDU sino también otros grupos políticos.

Javier Ruiz jaunak, Talde Popularraren izenean, egun, zuzenbidezko estatu batean bizi garela dio, non, botere-banaketa eta legearen nagusitasuna ematen den.

Javier Ruiz en nombre del Grupo Popular indica que actualmente vivimos en un Estado de derecho con división de poderes y con la supremacía de la ley. En relación a

Herrira-ri dagokionez, prozedura judizial bakarra dagoela irekita adierazten du eta epaitegiek ebatziko dutela auzia. Salaketak larriak direla eta antzeko erakundeak legez kanpo utzi direnaren aurrekariak daudela. Era berean, Herrira-k ehun "ongi etorri" baino gehiago antolatu dituela azpimarratzen du, zeinak, terrorismoaren goraipatzeak diren. ETA erakundeak holding baten moduan jokatzen duela gogorarazten du, atal eta parte-hartzaile desberdinekin. Presoen atalean, bere helburu bakarra haiek kontrolatzea da, disidentziak ekiditeko. Tokiko mailan, EAJ-PNV eta BILDU taldeen artean isilpeko itun bat dagoela gero eta nabarmenagoa dela adierazten du eta horren ondorioz, batetik, Gobernu Talde bat dagoela eta aparte gobernu eragile bat, alkate formal bat eta benetako alkatesa bat. Itun horren ondorioz, EAJ-PNV taldeak bere exijentzia etikoaren maila jaitsi egin du. Amaitzen du adieraziz, guztiz demokratikoa dela Estatua eta sistema demokratikoa hura barrutik suntsitzen saiatzen direnen aurka defendatzea.

Herrira, indica que hay un procedimiento judicial abierto y los tribunales decidirán al respecto. Recuerda que las acusaciones son graves y existen antecedentes de organizaciones similares que fueron ilegalizadas; a la vez que recalca que Herrira ha organizado más de cien "ongi etorris" que son enaltecimiento del terrorismo. Recuerda que ETA funciona como un holding con diferentes apartados y participantes. En el apartado de los presos tiene como única finalidad controlar a los mimos para evitar disidencias. Manifiesta que a nivel local se observa cada vez más un pacto encubierto entre el PNV y BILDU y como consecuencia de ello, existe un Equipo de Gobierno y aparte de un gobierno efectivo, existe un Alcalde formal y una Alcaldesa real. Como consecuencia de este pacto, el PNV ha rebajado su nivel de exigencia ética. Finaliza manifestando que es absolutamente democrático que el Estado y el sistema democrático se defiendan de los que intentan destruirlo desde dentro.

Koldo Iturbe jaunak adierazten du ez diela errealitatearekin bat ez datozen diskurtsoei erantzungo, nahiago duela etorkizunari begira hitz egin, gizartean dagoen itxaropena landuz, jarrera irekiak sustatuz, adostasuna bilatuz, borondateak errespetatuz eta horretan diharduela Eusko Jaurlaritzak, Gobernu Taldeak eta alkateak. Gogorarazten du askotan partekatu izan dituztela kontzentrazioak eta espazioak PP taldearekin eta EAJ-PNV ez dagoela inongo indar politikori salduta, baizik eta, euskal gizartearekin konprometituta soilik dagoela.

Koldo Iturbe manifiesta que no va a contestar a viejos discursos que faltan a la realidad, que prefiere hablar en clave de futuro, trabajando la esperanza de que existe en la sociedad, promoviendo posturas abiertas, buscando consenso, respetando voluntades y en ello está trabajando el Gobierno Vasco, el Equipo de Gobierno y el Alcalde. Recuerda que en multitud de ocasiones han compartido concentraciones y espacios con el PP y que en PNV no está vendido a ninguna fuerza política sino que únicamente está comprometido con la sociedad vasca.

Maitane Nerekan andreak adierazten du Getxon ez duela alkatesa batek gobernatzen, nahiz eta egoera positiboa irudituko litzaiokeen, nahiz eta

Maitane Nerekan indica que en Getxo no gobierna una alcaldesa, situación que le parecería positiva, aunque no fuera ella ya que la problemática municipal se

gobernatzen bera egon ez; udaleko problematika ikuspegi desberdinetik landuko bailitzateke. Mozioak ez dituela arazoak konpontzen aitortzen du, are gutxiago PP taldearen jarrera ikusita, nahiz eta, hala eta guztiz ere, aurrerapen txiki batzuk egin diren, esate baterako, errenteriako Udalean gertatzen ari dena, non, Alderdi Popularrak diskurtso desberdina duen Herrira-ren atxiloketei dagokienez.

abordaría con prismas diferentes. Reconoce que la moción no resuelve los problemas y menos viendo la posición del Partido Popular, aunque así y todo existen pequeños avances como el que se está produciendo en el ayuntamiento de Errenteria en el que el Partido Popular tiene un discurso diferente respecto a las detenciones de Herrira.

Javier Ruiz jaunak adierazten du ETAk indarkeria uztea ez dela planteamendu etiko baten harira gertatzen, baizik eta ETAren interes politikoengatik, zeinak, bere burua suntsituta ikusi duenean politikan hartu nahi duen parte. Euskal gizartearen nahia ETA desegitea dela uste du. EAJ-PNV taldeak jarrera distantziakidea edukitzea kritikatzen du Estatuak eta ETAk giza eskubideak urratzen dituztela adieraztean. Koldo Iturbe jaunari erantzuten dio iritzi desberdina edukitzea ez dela probokazioa eta benetan probokazioa iruditzen zaiona BILDU taldeko zinegotziek daramatzaten kamisetak direla, horiei buruz alkateak aipamenik egin ez badu ere. BILDU taldeari esaten dio harrigarria iruditzen zaiola haiek sufrimenduaz hitz egitea, ETAren jarduera kondenatzeari uko egiten diotenean eta, hark, Getxon sufrimendua eta heriotzak eragin dituenean. Alkateari terrorismoaren aurkako borrokan urte hauetan EAJ-PNV taldearen ekarpena zein izan den galdetuz amaitzen du.

Javier Ruiz indica que el cese de la violencia de ETA no se produce por un planteamiento ético sino por intereses políticos de ETA que tras verse derrotada quiere participar en la política. Cree que el deseo de la sociedad vasca es que ETA se disuelva. Critica que el PNV se sitúe en una posición equidistante indicando que el Estado y ETA violan los derechos humanos. Replica a Koldo Iturbe que tener una opinión diferente no es provocar y que lo que sí le parece provocativo son las camisetas que portan los concejales de BILDU, sobre las que el Alcalde no ha hecho ninguna observación. A BILDU le manifiesta que le parece sorprendente que hablen de sufrimiento cuando se niegan a condenar la actividad de ETA, que ha causado sufrimientos y muertes en Getxo. Finaliza preguntando al Alcalde cual ha sido la aportación del PNV en estos años en la lucha contra el terrorismo.

Koldo Iturbe jaunak erantzuten dio PP taldea EAJ-PNV taldearen zentralitateak eta hark elkarrizketaren alde egiten duen lanak gogaitzen duela. Getxon alkatea dagoela adierazten du eta itun baten harian BILDU-ko alkatesa bat dagoela adieraztea probokazioa dela. Gogorarazten du ETA desegiteko eskaera betidanik defendatu izan duela EAJ-PNV

Koldo Iturbe replica que al PP le molesta la centralidad del PNV y su trabajo por el diálogo. Indica que en Getxo hay un Alcalde y manifestar que existe una Alcaldesa de BILDU debido a un pacto es provocar. Recuerda que la petición de que ETA se disuelva es algo que desde siempre ha defendido el PNV. Critica la sin razón e inmovilismo del PP así como

taldeak. PP taldearen arrazoirik eza eta immobilismoa kritikatzen ditu eta, baita, ETAren jarrera ere bere azken komunikatuan. Bere esku-hartzea EAJ-PNV taldeak biktimekiko duen errespetua eta haienganako babesa berretsiz amaitzen du.

también la actitud de ETA en el último comunicado. Finaliza su intervención ratificándose en el respeto y apoyo del PNV hacia las victimas.

Alkateak, egindako zeharkako aipamenei dagokienez, BILDU taldeari esaten dio ez direla inor alkateari nora joan behar duen eta bere iritziak nola eta zein komunikabidetan adierazi behar dituen esateko. Alderdi Popularrari egin duten galderak min egiten duela ere adierazten dio eta EAJ-PNV taldeak ETAren aurkako borrokan hildakoak eta kalteak jasan dituztenak ere badituela gogorarazten dio.

El Alcalde, por alusiones, dice a BILDU que no son nadie para indicar al Alcalde dónde debe de acudir y de qué manera y en qué medio debe manifestar sus opiniones. También indica al Partido Popular que la pregunta que ha formulado hiere y recuerda que PNV también tiene muertos en la lucha contra ETA, así como gente que ha sufrido daños.

Javier Ruiz jaunak erantzuten dio EAJ-PNV taldeak terrorismoaren aurkako borrokan izan duen jarrera kritikatu baino ez duela egin, Estatuak planteatu izan dituen neurri guztien aurka agertu baita. ETAren terrorismoak eragindako kalteak talde politiko batzuk besteek baino askoz ere gehiago sufritu dituztela ere adierazten du. Mozioak botere-banaketa ez errespetatzea kritikatzen du eta EAJ-PNV taldeak, identitate-nagusitasunaren irizpide batean oinarrituz, interesatzen ez zaion horretan indarrean dagoen legedia ez zaiola aplikagarri uste duela deritzo; eta horrelako irizpideak edukitzeak totalitarismoa esan nahi duela.

Javier Ruiz replica que sólo ha criticado la postura del PNV en la lucha contra el terrorismo porque siempre se ha opuesto a todas las medidas que el estado ha planteado. Manifiesta también que unos grupos políticos han sufrido mucho más que otros el daño del terrorismo de ETA. Critica que la moción no respete la división de poderes y opina que el PNV, en base a un criterio de superioridad identitaria cree que no le es de aplicación la legalidad vigente en lo que no le interesa, y tener ese tipo de criterios significa totalitarismo.

Bingen Saiatua jaunak adierazten du mozioak Herrira-ren egoera planteatzen duela eta PP taldeak mozioa “dena ETA da” baldintzara daramala, non, bera ere hor sartzen duela esan nahi duen. Gogorarazten du Herrira-k euskal presoen eskubideen alde borrokatzea duela xede eta ez direla errespetatuak izan; horrek agerian uzten du defizit demokratikoa, onartezina dena eta jarduera horiek mendeku gisa soilik interpretatzea

Bingen Saiuta indica que la moción plantea la situación de Herrira y el PP lleva la moción a términos de “todo es ETA” en la que supone que le incluye a el mismo. Recuerda que Herrira tiene como objetivo luchar por los derechos que tienen los presos vascos y que no están siendo respetados; lo que evidencia un déficit democrático no admisible y que solo puede interpretarse esas actuaciones en clave de venganza. Finaliza indicando que

ahalbidetzen duena. Euskal herriak PP taldearen gogoz kontra bada ere, aurrera egiten jarraituko duela esanez amaitzen du.

el pueblo vasco seguirá avanzado aunque le pese al PP.

Mozioa bozkatu eta onartu egiten da EAJ-PNV eta BILDU taldeen aldeko 14 boto eta PP eta PSE-EE taldeen aurkako 11 boto lortzean.

Sometida la moción a votación es aprobado al obtener 14 votos a favor: PNV, BILDU, 11 votos en contra PP, PSE-EE.

Ondorioz, honako mozio hau onesten da:

En consecuencia es aprobada la siguiente moción:

Behean sinatzen duten Getxoko udal talde politikoek honako mozioa aurkezten dute, bat eginik eusko legebiltzarrean EAJ eta EhBILDUk aurkeztutako adierazpenarekin 2013ko urriaren 3an, bere eztabaida eta onarpenerako 2013ko urriaren 29ko osoko bilkuran:

Los grupos politicos de Getxo abajo firmantes, presentan para su debate y aprobacion en el Pleno de Getxo de 29 de octubre de 2013 la siguiente mocion, haciendo suya la declaracion presentada por el PNV y EHBILDU en el parlamento vasco el 3 de octubre de 2013:

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken urteetan. Aldaketa politiko sakona izan da ETA erakundeak erabaki eta adierazi izana 2011ko urriaren 20an bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera.

En los últimos años, en EuskalHerria, hemos vivido profundos cambios políticos. La decisión y el anuncio del cese definitivo de la actividad armada de ETA, el 20 de octubre de 2011,ha supuesto un profundo cambio político.

Herri hau, giza eskubide guztien onarpenean eta defentsan oinarrituz, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz eraiki behar dela, herri honen gehiengoak aspaldi egindako hautua da.

Este Pueblo se tiene que construir desde el respeto y la defensa de todos los derechos, a través de la consolidación de la paz y la democracia, y en base a la voluntad de sus ciudadanos y ciudadanas. Eso es lo que la mayoría de este Pueblo eligió hace ya tiempo.

Hilabete honetan, "Herrira" plataformako kideak atxilotu dituzte. "Dena ETA da" tesiari eutsiz egin dituzte atxiloketak, Euskal Herrian bake prozesua bultzatu eta finkatzeko bidean atzeraldia suposatzen dutelarik.

Este mes, han sido detenidos miembros de la plataforma "Herrira". Las detenciones – que se han realizado conforme a la tesis de que "todo es ETA"- suponen un retroceso en el camino del impulso y la consolidación del proceso de la paz en EuskalHerria.

Euskal Herriko erakundeek eta gizartearen gehiengo nabarmenak euskal presoak jasaten ari diren oinarrizko

Las instituciones vascas y una mayoría significativa de la sociedad vasca han denunciado, una y otra vez, la vulneración

eskubideen urraketak behin eta berriz salatu dituzte, legeak, zuzenbide internazionalak eta giza eskubideen deklarazioak presoei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea zilegia dela adieraziz.

de derechos básicos que están sufriendo los presos vascos; han reivindicado que es legítimo defender los derechos que la Ley, el derecho internacional y la declaración de derechos humanos les reconocen a los presos .

Oinarrizko eskubideen etengabeko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak behar duen soluzio bilaketarako.

La vulneración indefinida de derechos básicos no contribuye, en modo alguno, a la búsqueda de la solución que necesita nuestro Pueblo.

Erakunde politikoen ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarrizko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartze eta partehartze aldarrikapen demokratikoak; euskal gizartearen aniztasun politikoari zor zaion errespetuari eragiten diote zuzen zuzenean, eta baita gure herriko elkarbizitzari ere; eta guztiz urruntzen gaituzte euskal gizarteak behin eta berriz eskatzen duen normalizazio politiko eszenatokietatik.

Los procesos de ilegalización de organizaciones políticas lesionan derechos fundamentales como son las libertades de ideología, expresión, reunión y participación y afecta directamente al respeto que se merece la pluralidad de la sociedad vasca, y también a la convivencia en nuestro pueblo; y nos aleja considerablemente del escenario de normalización política que, una y otra vez, reclama la sociedad vasca.

Horregatik ondorengo puntuak aurkezten ditugu udal batzak onartu ditzan:

Por todo ello, presentamos al pleno para su debate y aprobación los siguientes puntos:

Getxoko Udal batzak:

El Pleno del Ayuntamiento de Getxo:

1. Espainiar Gobernuaren estrategia politiko-judiziala salatzen du, salbuespenezko legediak oinarri hartuta, zenbait erakunde judizial, Auzitegi Nazionala kasu, erabiltzen dituelako “dena ETA da” tesia aktibatzeko, ETAk duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren, eta ETAren ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabilelako, aipatu erakunde horren erabakiaren irrebertsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeko ardura

1- Denuncia la estrategia político-judicial del Gobierno español, que, basándose en leyes de excepcionalidad, utiliza determinadas instancias judiciales como la Audiencia Nacional para activar la tesis del “todo es ETA” a sabiendas de que ETA anunció hace casi dos años el cese definitivo de su actividad armada y porque, en vez de asumir la responsabilidad política de verificar la irreversibilidad y la veracidad de la decisión de ETA, en vez de impulsar el proceso de

politikoa bere gain hartu beharrean, eta bake prozesua bultzatu beharrean.

2. Euskal herritarron eskubide zibil eta politikoen errespetua eta "Herrira"ren baitan euskal presoen oinarrizko eskubideen alde lanean ari ziren atxilotutako pertsona guztien askatasuna eskatzen du.

paz, trata de recuperar la idea de que la actividad de dicha organización perdura.

2- Reclama respeto a todos los derechos civiles y políticos de toda la ciudadanía y solicitan la puesta en libertad de todas las personas detenidas que en el seno de Herrira estaban trabajando por los derechos fundamentales de los y las presas vascas.

**120.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ESKUMENAK OSOKO BILKURARI BIHURTZEA.**

**120.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ DEVOLUCIÓN DE COMPETENCIAS AL PLENO.**

Eduardo Andrade jaunak mozioa irakurtzen du. Osoko Bilkuraren aurreko puntuetan aurrekontu-aldaketei buruz hitz egin dela adierazten du eta luzatutako egungo egoeran, alkateak aurrekontua bere nahierara aldatzen duela; eta gizarte-zerbitzuen edo etxebizitzaren arloko maileguak beste xede batzuetara bideratu dituzten aurrekontu-aldaketa desberdinen berri ematen du.

Eduardo Andrade da lectura a la moción. Indica que en puntos anteriores del Pleno se ha hablado de las modificaciones presupuestarias y en la actual situación prorrogada el Alcalde modifica el presupuesto a su antojo, dando cuenta de diferentes modificaciones presupuestarias que trasvasan créditos de servicios sociales o vivienda a otras finalidades.

Ana Helguera andreak adierazten du Talde Popularrak proposatzen duena mozio baten bitartez ez dela aplikagarria, aurrekontu-egikaritzarako araua aurrekontuarekin onetsi edo aldatu behar baita. Aurrekontu-luzapenetan onesten diren aldaketak, hein handi batean, alkatearen berezko eskuduntzak direla eta ez Osoko Bilkuraren eskuordetzez egikaritzen dituenak azpimarratzen du, bai foru-araudiak bai estatuko araudiak diotena kontuan hartuz; eta Talde Popularra ados ez badago estatuko legedia alda dezakeela esaten dio. Aurrekontu-transferentziek lehentasunei eta beharrezko gastuei erantzuten dietela adieraziz amaitzen du.

Ana Helguera manifiesta que lo que propone el Grupo Popular no es susceptible de aplicación a través de una moción ya que la norma de ejecución presupuestaria ha de aprobarse o modificarse con el presupuesto. Incide en que las modificaciones que se aprueban en las prórrogas presupuestarias son competencias propias del Alcalde la gran mayoría de ellas y no competencias delegadas del Pleno, atendiendo a lo que indica la normativa tanto foral como la estatal, y si el Grupo Popular no está de acuerdo puede cambiar la legislación estatal. Finaliza indicando que las transferencias presupuestarias responden a prioridades y gastos necesarios.

Luis Almansa jaunak adierazten du Gobernu Taldea luzatutako aurrekontua kudeatzen ari dela Talde Sozialistari gustatzen ez zaizkion jarduera asko eta asko gauzatuz; baina, hala eta guztiz ere, ez zaiola egin ahala jokoaren arauak gehiengoen eta gutxiengoen arabera aldatzen joatea arrazoizkoa iruditzen. Beraz, ez dira PP-ren jokoan sartuko eta udalaren jarduera geldiarazteko ez dute eskuin kontserbadoreekin bat egingo.

Luis Almansa manifiesta que el Equipo de Gobierno está gestionando un presupuesto prorrogado realizando actuaciones que al Grupo Socialista muchas de ellas no le gustan pero que pese a ello no le parece razonable cambiar las normas del juego sobre la marcha en función de mayorías y minorías por lo cual no van a entrar al juego al PP y no van a hacer una pinza con la derecha conservadora para paralizar la actividad municipal.

Arantza Gutierrez andreak adierazten du BILDU taldea ez zela 2011ko aurrekontu-egikaritzaren araudiaren onarpenean egon. Partiduen Legeak Udaletik kanporatu zuelako; baina alkateak eskuduntza gehiegi dituela deritzo eta horietako askok Osoko Bilkurarenak izan beharko luketela. Mozioa testimoniala dela aitortzen du eta ez zaio iruditzen Talde Popularrari gehiegi interesatzen zaion mozioa denik, ez baitira beste udal-taldeekin adosten saiatu. Kudeaketa ekonomikoan alkatearen ahalmena kasik erabatekoa dela deritzo eta, horregatik, nahiz eta legearekin bat izan, dekretu bidez gizarte-gastua murrizten ari da, Getxo Antzokiarekin jarraitzen da, nahiz eta Osoko Bilkura proiektu horren aurka egon, eta antzeko beste hainbat jarduera. Adierazitakoa adierazita, Osoko Bilkurak, zeinak herritarrak ordezkatzen dituen, gastuen arloan eskuduntza gehiago eduki behako lituzkeela uste du; beraz, mozioaren alde bozkatuko dute.

Arantza Gutiérrez indica que BILDU no estuvo en la aprobación de la normativa de ejecución presupuestaria de 2011 ya que la ley de partidos les excluyó del Ayuntamiento pero opina que el Alcalde tiene demasiadas competencias, muchas de las cuales deberían de ser del Pleno. Reconoce que la moción es testimonial y no parece que sea una moción que interese mucho al Grupo Popular ya que no han intentado consensuarla con otros grupos municipales. Opina que el poder del Alcalde en materia de gestión económica es casi total y por eso de manera legal, pero por decreto, está reduciendo el gasto social, se continúa con el Getxo Antzokia pese a que el Pleno esté en contra de dicho proyecto y otro tipo de actuaciones similares. Pese a lo indicado, cree que el Pleno, que representa a los vecinos, debe tener mayores competencias en gasto por lo que votarán a favor de la moción.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du mozioak Osoko Bilkuraren eskuduntzak berreskuratzea soilik planteatzen duela eta mozioak bete egin beharko litzatekeela uste du, Osoko Bilkurak agindu behar baitu, Getxoko bizilagun guztiak ordezkatzen dituelako. Gizarte-larrialdietarako, familiei laguntzeko eta abar dagoen aurrekontua murriztuz egindako transferentziak azpimarratzen

Eduardo Andrade indica que la moción solo plantea recuperar las competencias del Pleno y cree que las mociones debieran ser cumplidas ya que el Pleno es el que debe mandar porque es el que representa a todos los vecinos de Getxo. Insiste en las transferencias que se han hecho reduciendo el presupuesto de emergencia social, ayuda a familias, etc y opina que si ha sido para hacer frente a gastos

ditu; eta hori beharrezko gastuei aurre egiteko izan bada, beste partida batzuetan badaudela baliabideak deritzo.

necesarios existen recursos en otras partidas.

Ana Helguera andreak Getxoko Udaleko aurrekontu-egikaritzarako araudia beste udaletakoen berdin-berdina dela adierazten du. Mozioen derrigortasunari dagokionez, dauden epai judizialetara egiten du igorpena. Udalerria behar bezala kudeatzen ari dela deritzo, azpiegituretan eta zerbitzuetan etengabeko hobekuntzak eginez eta, hori guztia, zorra gehitu gabe eta zergak igo gabe; kudeaketa hori da PP taldea gogaitzen duena.

Ana Helguera manifiesta que la normativa de ejecución presupuestaria del Ayuntamiento de Getxo es idéntica a la de otros ayuntamientos. En la relación a la obligatoriedad de las mociones se remite a las sentencias judiciales existentes. Opina que el municipio se está gestionando correctamente y con continuas mejoras de infraestructuras y servicios, todo ello sin incrementar la deuda y sin subir impuestos, y esta gestión es la que molesta al PP.

Luis Almansa jaunaren iritziz, mozioari koherentziarik eza dario, izan ere, PP-k agintzen duen tokietan ez da mozioan eskatzen dena egiten. Arreta deitzen dio BILDU-k eskuin kontserbadorearekin udal-jarduera geldiarazteko bat egiteak, nahiz eta zerbait testimoniala izan.

Luis Almansa opina que la moción rezuma incoherencia ya que dónde manda el PP no hace lo que en esta moción pide. Le llama la atención que BILDU haga la pinza con la derecha conservadora aunque sea algo testimonial para intentar paralizar la actividad municipal.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du Talde Sozialistak EAJ-PNV taldearen aurrekontuak babestu izanak sortzen dion lotsa estali nahi duela, zeinaren ondorioz, azken hauteskundeetan bi zinegotzi galdu zituen. Ana Helguera andreari adierazten dio egia esan Getxo hondatuta dagoela, kale asko asfaltatu gabe daudela, zeinak, dirudienez, urte amaieran asfaltatuko diren, dendak ixten jarraitzen dutela eta, bien bitartean, Udalak Osoko Bilkurak babesten ez dituen obra faraonikoekin jarraitzen duela, zeintzuek zorpetze-egoera handia eragingo duten gutxiegi erabiliko diren azpiegiturekin. Gizarte-gastuan egiten ari diren huste handia eta Osoko Bilkuraren, herritarrak ordezkatzen dituen organoa, irizpideen aurka gobernatzea ere kritikatzen dute.

Eduardo Andrade indica que el Grupo Socialista quiere ocultar la vergüenza que le supone el haber apoyado los presupuestos del PNV y que en las últimas elecciones le costaron dos concejales. A Ana Helguera le indica que la realidad es que Getxo está hecho una piltrafa, que hay muchas calles sin asfaltar, que al parecer se asfalta a finales de año, que los comercios se continúan cerrando, mientras que el Ayuntamiento insiste en obras faraónicas que no cuentan con el apoyo del Pleno y que van a generar una situación de endeudamiento importante con infraestructuras infrautilizadas. Critica también el vaciamiento que están realizando en gasto social y que gobiernen contra el criterio del Pleno que es el órgano que representa a los vecinos.

Ana Helguera andreak gogorarazten du kontua dela Getxo erreferentziazko

Ana Helguera recuerda que la realidad es que Getxo es un municipio de referencia

udalerria dela, aintzatespena duena, baita, nazioarte- mailakoak ere, eta jarduera eta sektore desberdinen artean oreka duela.

con reconocimientos, incluso internacionales y que tiene un equilibrio entre las diferentes actividades y sectores.

Arantza Gutierrez andreak adierazten du Talde Sozialistak ere, eskuinarekin, EAJ-PNV taldearekin, ituna egin zuela 2011ko aurrekontuak onesteko eta PP taldea ere babestu zutela Partiduen Legea onesteko. Mozioari babesa emango diote beren ustez Osoko Bilkurak erabaki behar baitu herritarren dirua zertan gastatu behar den.

Arantza Gutiérrez manifiesta que el Grupo Socialista también pactó con la derecha, el PNV, para aprobar los presupuestos del 2011 y también apoyaron al PP para aprobar la ley de partidos. Apoyan la moción porque creen que el Pleno debe decidir en qué se gasta el dinero de los vecinos.

Luis Almansa jaunak arestian aipaturikoa azpimarratzen du eta, baita, mozioan eskatutakoaren eta hari beren babesa emango dioten taldeek gobernatzen dituzten udaletan egiten dutenaren arteko koherentziarik eza ere.

Luis Almansa insiste en lo manifestado previamente y en la incoherencia entre lo que se plantea en la moción y lo que hacen los grupos que van a apoyar la moción en los ayuntamientos que gobiernan.

Alkateak mozioan koherentziarik eza salatzen du eta bere ustez oposizioak beti Osoko Bilkura indartzea eskatzea errepikatu egiten da baina udalek legezkotasuna eta araubideari buruzko oinarriak araupetzen dituen Legea beteaz jarduten dute, zeinak Osoko Bilkura ez duen alkatearen goiko hierarkiko gisa jartzen. Alderdi Popularrari duenarekin ados ez badaude egin behar dutena lege-esparrua aldatzea dela esaten dio. Mozioen derrigortasunari dagokionez, EAEANak mozioak ez direla lotesleak adierazi zuela gogorarazten du.

El Alcalde denuncia la falta de coherencia en la moción y opina que es recurrente que la oposición siempre pide que se potencie al Pleno municipal pero que los ayuntamientos actúan cumpliendo la legalidad y la ley de bases de régimen local que no coloca al Pleno como superior jerárquico del Alcalde. Indica al Partido Popular que si no están de acuerdo lo que tiene que hacer es cambiar el marco legal. En relación a la obligatoriedad de las mociones recuerda que el TSJPV ya indicó que éstas no son vinculantes.

Arantza Gutierrez andreak Almansa jaunaren "erakutsiak" eskertzen ditu eta mozioa babesten du alkateak hartu ohi dituen erabakiak Osoko Bilkurak hartu beharko lituzkeela uste duelako.

Arantza Gutiérrez agradece las "lecciones" de Almansa y apoya la moción porque cree que el Pleno debe adoptar decisiones que habitualmente hace el Alcalde.

Mozioa bozkatu eta onetsi egiten da PP eta BILDU taldeen aldeko 13 boto eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako 12 boto lortzean.

Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 13 votos a favor: PP, BILDU, 12 votos en contra: PNV,PSE-EE.

Ondorioz, mozio hau onesten da:

En consecuencia, es aprobada la siguiente

moción:

Getxoko Udalaren 2011ko Aurrekontu Orokorrarekin batera onetsitako aurrekontua egikaritzeko Udal Arauak honako hau ezartzen du bere 7. artikuluan:

La Norma Municipal de Ejecución presupuestaria aprobada junto con el Presupuesto General 2011 del Ayuntamiento de Getxo establece en su artículo 7:

Aldaketen erregimenari aplika daitekeen araudia:

Normativa aplicable al régimen de modificaciones:

"3.- Kreditu-aldaketak onesteko eskumena Aurrekontuaren Foru Arauan erabakitakoa da, nahiz eta eskumena Alkatetzari eskuordetzen zaion, ondorengo xedearekin:

"3.- La competencia para aprobar las modificaciones de crédito es la determinada en la Norma Foral Presupuestaria, si bien se delega en la Alcaldía la competencia para:

-Programa beraren barnean edo Programa ezberdinen artean onartzea inbertsio errealetarako ezarritako esleipenak murriztuko dituzten kreditu-transferentziak.

-Aprobar, dentro del mismo Programa o entre Programas diferentes, transferencias de créditos que minoren consignaciones previstas para inversiones reales.

-Programa funtzional ezberdinen arteko transferentziak onestea, jatorrizko eta helmugako programetako aldaketetan bildutako aldaketak hasierako esleipenen % 25 gainditzen duenean.

-Aprobar transferencias entre distintos programas funcionales, cuando la variación acumulada de modificaciones en los programas de origen y destino supere el 25% de sus consignaciones iniciales.

-Konpromisoko kredituen egoeraren zenbateko guztia handitzen ez duten konpromisoko kredituen zenbatekoen aldaketak onartzea.

-Aprobar las variaciones de los importes de los créditos de compromiso que no incrementen el importe total del estado de créditos de compromiso.

-Finalista izaerako diru-sarrerekin finantzatuta ez dauden kredituen gaikuntza onestea, eta pilatuta handik urtebetera Aurrekontuaren % 5 baino gehiago handitzea ekarriko ez dutenak.

-Aprobar habilitaciones de créditos no financiados con ingresos de carácter finalista que acumulativamente al año no supongan un incremento superior al 5% del Presupuesto.

-Kreditu osagarriak onestea eta pilatuta handik urtebetera Aurrekontuaren % 5 baino gehiago handitzea ekarriko ez dutenak.

-Aprobar créditos adicionales que acumulativamente al año no supongan un incremento superior al 5% del Presupuesto.

-Kreditu globalen gehikuntzak aldaketen bitartez, baldin eta kredituaren

-Incrementos del crédito global a través de modificaciones siempre que el importe

zenbatekoak, guztira, hasierako ordainketa-kredituen % 5 gainditzen ez badu.

total del crédito no supere el 5% de los créditos de pago iniciales

-Bajak baliogabetzeengatik onestea."

-Aprobar bajas por anulación."

ESKUORDETZE horrek, Getxoko Alkateari Getxoko herritarren diruarekin jolasteko aukera ematen dio, hark nahi duen moduan, kreditu-transferentziak, konpromisoko kredituak, kredituen gaikuntzak, kreditu osagarriak eta abar onesten uztean.

Esta DELEGACIÓN permite al Alcalde de Getxo, jugar con el dinero de los vecinos y vecinas de Getxo a su libre albedrío, al permitirle aprobar transferencias de créditos, créditos compromiso, habilitaciones de crédito, créditos adicionales, etc…

Udalbatzarren eskumen bat izan behar duenak KONTU-EMATE bihurtu da eta herriko legezko ordezkariei gure herritarren diruarekin zer egiten duen soilik esaten zaigu.

Lo que debe ser una competencia plenaria se ha convertido en una DACIÓN DE CUENTA en el que a los legítimos representantes del pueblo sólo nos informan de lo que hacen con el dinero de nuestros vecinos y vecinas.

Jardunbide horiekin amaitzeko ordua da, udalbatzarren eskumenak errekuperatzeko ordua da, UDALBATZARRAK eskumen horiek eskuordetu zituen eta gaur, UDALBATZARRAK erabaki behar du haiek kendu eta errekuperatzea Udalbatzarrak dagozkion eskumenak izan ditzan.

Ya es hora de terminar con estas prácticas, es hora de recuperar las competencias plenarias, el PLENO delegó estas capacidades y hoy el PLENO debe decidir quitárselas y recuperarlas para que el Pleno tenga las capacidades que le corresponden.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udal Popular Taldeak ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular de Getxo presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA. Getxoko Udalbatzarrak 2011ko urtarrilaren 28ko osoko bilkuran onetsitako Aurrekontuaren Udal Arauaren 3. paragrafoko 7. artikuluan ezarritako Alkatetzari egindako eskuordetzea BALIOGABETZEN du.

PRIMERO. El Pleno Municipal del Ayuntamiento de Getxo ANULA la delegación a Alcaldía establecida en el artículo 7 apartado 3 de la Norma Municipal Presupuestaria aprobada en el pleno de 28 de Enero de 2011.

BIGARRENA. Mozio hau udaleko komunikabideei jakinaraz diezaietela.

SEGUNDO. Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**121.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: NAGUSI TXARTELA PROGRAMA.**

Raquel Gonzalez andreak mozioa irakurtzen du eta, jarraian, Nagusi Txartelaren abantailak azaltzen ditu eta hori ezartzea erraza litzatekeela azpimarratzen du.

Elena Coria andreak, Gobernu Taldearen izenean, Nagusi Txartela ekimen ona dela adierazten du eta, hain zuzen, horregatik Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jarri zirela; egun, Romoko Nagusien Etxean izapidetzen da eta, jada, 60 txarteletik gora izapidetu dira. Udalak zabalkunde–kanpaina egingo du eta txartelak jendearen arretarako bulegoetan izapidetzeko aukera aztertzen ari dira. Beraz, adierazitakoan oinarrituz, mozioan abstenitu egingo dira.

Maitane Nerekan andreak adierazten du mozioaren testuko lehenengo paragrafoek lotsa ematen dietela, PP taldeak koordainketa farmazeutikoa ezarri, pentsiodunen pentsioak KPIaren arabera eguneratu ez eta abar, eta, gainera, pentsioen beste erreforma bat planteatzen dutela, erretiratuei beren babesa jaitsiko diena, kontuan hartzen badugu. Errealitate horren aurrean, mozio hau itxurakeria hutsa dela uste du eta hor planteatzen dutena ez dela lehentasunezkoa Osoko Bilkura batean jorratzeko, besteak beste, jada izapidetzen ari delako; beraz, abstenitu egingo dira.

Luis Almansa jaunak adierazten du mozioa babestuko dutela, nahiz eta PP taldeak adinekoekin konpromiso serioa dutela baieztatzea kritikatzen duten, beren egintzak bestelakoak baitira, menpekotasunaren legearen baliogabetzea azpimarratuz; mozioan planteatzen

**121.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ PROGRAMA NAGUSI TXARTELA.**

Raquel González da lectura a la moción pasando a continuación a detallar las ventajas de la Nagusi Txartela y recalcando la facilidad de su implantación.

Elena Coria en nombre del Equipo de Gobierno, indica que la Nagusi Txartela es una buena iniciativa y que por ello se pusieron en contacto con la Diputación Foral de Bizkaia y actualmente se tramita en la Nagusien Etxea de Romo, habiéndose tramitado más de 60 tarjetas. El Ayuntamiento va a realizar una campaña de divulgación y está estudiando la posibilidad de tramitarlas en las oficinas de atención ciudadana. Por tanto, en base a lo indicado, se abstendrán en la moción.

Maitane Nerekan indica que el texto de la moción, en los primeros párrafos les provoca vergüenza ya que el PP ha implantado el copago farmacéutico, la no actualización con el IPC de las pensiones, etc y además plantean otra reforma de pensiones que rebajarán su protección a los jubilados. Ante esta realidad cree que esta moción solo es una cuestión de imagen y lo que plantean creen que no es prioritario para ser tratado en un Pleno porque entre otras cuestiones, ya se está tramitando, por lo que se abstendrán ante la moción.

Luis Almansa manifiesta que van a apoyar la moción aunque critica que el PP afirme que mantiene un compromiso serio con los mayores ya que sus actos son otros destacando la anulación práctica de la ley de dependencia y que lo que plantean es algo pequeño pero lo van a apoyar.

dutena zerbait txikia izan arren, beren babesa emango diete.

Raquel Gonzalez andreak bere taldeari mozio hau aurkeztu izana eskertzen dio, izan ere, mozioa aurkezten duten bakoitzean Gobernu Taldeak, jada, horretan lanean dihardu; ea oraingoan mozioan agertzen den zentzuan ebazten duen. BILDU taldea kritikatzen du PP taldeak gure adinekoak defendatzen dituztela adieraztea lotsagarria iruditzen zaiola esateagatik, kontuan hartuz, bien bitartean, PP-k BILDU-ko udalbatza-kideek giza eskubideak babestea irentsi behar dutela. Luis Almansa jaunari adierazten dio PSE-EE izan dela pentsioak jaitsi dituen talde bakarra eta besteei erakutsiak ematen jarraitzeari uzteko esaten dio, denak nekatzen hasia baita.

Raquel González agradece a su propio grupo la presentación de la moción ya que siempre que presentan una moción el Equipo de Gobierno está trabajando en ello y espera que esta vez resuelva en el sentido indicado en la moción. Critica a BILDU que le parezca vergonzante que el PP manifieste que defiende a los mayores mientras que el PP tiene que tragar que los corporativos de BILDU defienden los derechos humanos. A Luis Almansa le indica que el PSE-EE es el único partido que ha bajado las pensiones por lo que pide que deje de dar clase a los demás ya que está empezando a cansar.

Luis Almansa jaunak erantzuten dio berak esku-hartzeetan erabiltzen duen ironiak ere nekatu egiten duela, are gehiago, mozioa babestekotan direla kontuan hartuta.

Luis Almansa replica que también cansa la ironía que ella utiliza en sus intervenciones y más aún cuando van a apoyar la moción.

Raquel Gonzalez andreak alkatea kritikatzen du, izan ere, PP bere esku-hartzeetan gaitik urruntzen denean arreta deitzen zaio, ez, ordea, gainerako udal-taldeei.

Raquel González critica al Alcalde que cuando el PP en sus intervenciones se aleja del asunto es llamado al orden, cuestión que no realiza el Alcalde con el resto de los grupos municipales.

Maitane Nerekan andreak adierazten du mozioak adineko pertsonei buruz hitz egiten duela eta PP-k bere argudioa giza eskubideetara eta ETAren jardueretara lekualdatu duela, zeinak, ez duen zerikusirik.

Maitane Nerekan indica que la moción habla de personas mayores y el PP ha trasladado su argumento a los derechos humanos y actuaciones de ETA, lo cual no tiene nada que ver.

Mozioa bozkatu eta onetsi egiten da PP eta PSE-EE taldeen aldeko 11 boto eta EAJ-PNV eta BILDU-ren 14 abstentzio-boto lortzean.

Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 11 votos a favor: PP, PSE-EE, 14 abstenciones: PNV, BILDU.

Ondorioz, honako mozio hau onesten da:

En consecuencia, es parobada la siguiente moción:

Alderdi Popularraren ekimenez, 2013ko ekitaldirako aurrekontuaren itunaren barnean sartu zen, "Nagusi Txartela" programa abian jartzea. Foru Dekretu bidez sortutako programa hori, Alderdi Popularrak adinekoen taldearekiko duen konpromiso irmotik sortzen da.

A iniciativa del Partido Popular, se incluyó en el pacto presupuestario foral para el ejercicio 2013, la puesta en marcha del programa "Nagusi Txartela". Este programa, que se crea mediante Decreto Foral, surge del compromiso serio que el Partido Popular mantiene hacia el colectivo de personas mayores.

Herrialdea pasatzen ari den egoera ekonomikoa zein den jakinik eta bereziki adinekoen taldea, programa hori abian jarri zen 60 urtetik gorako gure adinekoek abantailak izan ditzaten saltoki pribatuetan edo zerbitzu publikoetan, aurrez ekimen honetan parte hartzeko interesa duten erakundeek beren atxikimendua erakutsi ostean.

Siendo muy conscientes de la situación económica que atraviesa el país y más acusadamente el colectivo de personas mayores, se puso en marcha este programa con el objetivo de que nuestros mayores de 60 años puedan obtener ventajas en comercios privados o servicios públicos, previa adhesión de las entidades que estén interesadas en participar en esta iniciativa.

Beraz, ahalik eta sare zabalena antolatzea da helburua, erakunde publikoek edo pribatuek osatutakoa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan jarduerak garatzeko, "Nagusi Txartela"-ren titularrei abantaila ekonomikoak eskaintzeko asmoz.

Se trata por tanto, de articular una red lo más amplia posible, conformada por entidades públicas o privadas que desarrollen actividades en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia, con el objeto de que ofrezcan ventajas económicas a los titulares de la "Nagusi Txartela".

Ekimen honekin helburu bikoitza lortuko genuke; alde batetik, programa honekin bat egiten duten merkataritza-jarduerei laguntza ematea kontsumoa areagotuz eta, bestetik, gure adinekoei abantaila ekonomikoak eskaintzea beren erosketak egiteko orduan.

A través de esta iniciativa conseguiríamos un doble objetivo, por un lado apoyar a las actividades comerciales que se adhieran a este programa incrementando el consumo y por otro, ofrecer ventajas económicas a nuestros mayores a la hora de realizar sus compras.

Merkataritza-sektoreak eta adinekoen taldeak ekimen honi erantzun ona eman badiote ere, egia da ere saltoki askok ez dutela oraindik bat egin ekimenarekin eta adineko askok ere ez dutela, ezjakintasunagatik agian, "Nagusi Txartela" eskatu

Si bien es cierto que la iniciativa ha tenido una respuesta satisfactoria por parte del sector comercial y por parte del colectivo de mayores, no es menos cierto que todavía son muchos los comercios que aún no se han adherido y muchos mayores que quizá por desconocimiento, no han solicitado la "Nagusi Txartela"

Hori dela eta, irizten dugu Udalak,

Entendemos por ello, que el ayuntamiento

herritarrarengandik hurbilen dagoen erakundea izanik, informazioko eta hedapeneko lana egin dezakeela eta egin behar duela, udalerriko merkataritza-sektoretik eta 60 urtetik gorako adinekoen taldetik atxikimendu-kopuru handiagoa izan dadin.

como institución más cercana al ciudadano/a, puede y debe realizar una labor informativa y divulgativa, encaminada a suscitar un mayor número de adhesiones por parte del sector comercial y del colectivo de personas mayores de 60 años del municipio

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du:

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalak informazioko eta hedapeneko kanpaina bat egingo du udalerriko merkataritza-sektoreak eta 60 urtetik gorako adinekoen taldeak "Nagusi Txartela " ezagutu dezaten eta, hala badagokio, ekimen horrekin bat egin dezaten.

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Getxo realizará una campaña informativa y divulgativa con el objeto de que el sector comercial y el colectivo de personas mayores de 60 años del municipio, conozcan y en su caso se adhieran a la iniciativa "Nagusi Txartela".

BIGARRENA.- NAGUSIAK sareko zentrorik ez dagoenez udalerrian, Udalak "Nagusi txartela" bere HABen bitartez izapidetuko du, eta bertan eskaerak nahiz dokumentazioa jasoko dira eta Aldundira bidaliko dira bertan azken izapidea egin dezaten.

SEGUNDO.- A falta de centros de la red NAGUSIAK en el municipio, el Ayuntamiento facilitará la tramitación de la "Nagusi txartela" a través de sus OAC que recogerán las peticiones y la documentación y las enviaran a Diputación para su tramite final.

HIRUGARRENA.- Mozio hau udalaren komunikabideetan jakinaraz dadila.

TERCERO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

## <u>122.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KOLDO ITURBEREN GAITSEZPENA.</u>

## <u>122.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ REPROBACIÓN A KOLDO ITURBE.</u>

Marisa Arrue andreak mozioa irakurtzen du, zeinak, honela dioen:

Marisa Arrúe da lectura a la moción que indica lo siguiente:

2013ko urrian zehar, Getxoarte 2013k Kultur Etxearen laguntzarekin, bertako obrak Getxoko merkataritza eta ostalaritzako ingurunean erakusgai jartzea erabaki du.

Durante el mes de octubre de 2013, Getxoarte 2013 en colaboración con el Aula de Cultura ha decidido que se expongan sus obras en el entorno comercial y hostelero de Getxo

Ideia ona dirudi, gaur egun hain kaltetuta dagoen gure udalerriko ostalaritzako saltokia sustatzeko laguntza izan daitekeelako.

La idea parece buena, porque puede servir de apoyo para potenciar el comercio la hostelería de nuestro pueblo hoy en día tan deteriorado

Arazoa sortu da erakusgai jarritako 46 obra horietako batek getxotar askoren sentsibilitatea mindu duenean. Horixe izan da Endika Basagurenen obrarekin.

El problema aparece cuando una de las 46 obras expuestas ofende la sensibilidad de muchos getxotarras. Este es el caso de la obra montaje de Endika Basaguren.

Obra horretan kapera bat irudikatzen da ikusten diren polizia-zigiluekin "Bakearen usoaren heriotza"-gatik. Hegaztia albo batean ageri da koadroak zainduta, eta bertan Aste Santuko pauso bat ikusten da haurdun dagoen Ama Birjina batekin; beste aldean, berriz, beste mihise bat ageri da aingerua "alkoholikoa eta putazalea" den Kristo bati begira, egileak berak egindako deskribapena.

En dicha obra se representa "Una capilla con precintos policiales a la vista debido al "asesinato de la paloma de la Paz". El ave aparece custodiada a un lado por el cuadro en el que se ve un paso de Semana Santa con una Virgen María embarazada, mientras en el otro flanco figura otro lienzo con el ángel mirando a un Cristo "alcohólico y putero" descripción del propio autor.

Obra hori 24 ordutan baino lehenago kendu behar izan zen Areetan erakusgai jarri zen saltokitik jabeak bezeroengandik jasotako kexen ondorioz.

Esta obra tuvo que ser retirada en menos de 24 horas del establecimiento comercial donde estaba expuesta en el barrio de Las Arenas por las quejas que recibió la dueña por parte de su clientela.

Baina okerrena gero etorri da; izan ere, ekimenaren sustatzaile eta arduradun Kultur Etxeak, EAJko bozeramaile Koldo Iturbe jauna buru dela, erakusgai zegoen obra hori kendu beharrean, gure udalerriko beste auzo bateko beste saltoki bat aurkitu du, Algortan oraingoan, eta hilaren 7tik obra hori erakusleiho batean ikus daiteke.

Pero lo peor ha venido después, el Aula de Cultura promotora y responsable del Certamen; presidida por el Portavoz de PNV D. Koldo Iturbe, en lugar de proceder a retirar la citada obra de la exposición, ha vuelto a buscar otro establecimiento en otro barrio de nuestro pueblo, esta vez en Algorta donde, desde el lunes día 7, se vuelve a exponer en un escaparate esta obra.

Algortatar eta getxotar askori egindako irainarekin amaitu beharrean areagotu egin da, eta, beraz, iraina bikoitza da.

La ofensa para muchos algorteños y getxotarras, no termina sino que se reitera, con lo que la ofensa es doble.

Popularrok salatzen dugu obra horrek jende asko iraintzen duela eta ez duela getxotar zati handi baten sinesmenak errespetatzen.

Los populares denunciamos que esta obra hiere la sensibilidad de mucha gente y no respeta las creencias de gran parte de los getxotarras.

Salatzen dugu ere, Getxoko Udala bezalako erakunde batek bertako herritar asko asaldatzen eta iraintzen duten era horretako obrak erakusteko laguntzarik ezin duela eman.

Denunciamos también que una Institución como es el Ayuntamiento de Getxo no se debe prestar a la exposición de este tipo de obras que escandalizan y ofenden a gran parte de su población

Eta harritzen gaituena da EAJk uztea era honetako erakusketa ankerra antolatzen.

Y lo que nos sorprende es que sea el PNV el que permite la exposición de esta atrocidad.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Popular Udal Taldeak ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular de Getxo presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA: Getxoko Udalbatzarrak Kultur Etxeko lehendakari eta EAJren bozeramaile Koldo Iturbe jaunaren gaitzespena erabaki du, getxotar askoren sentsibilitatea mintzen duten irudi batzuk erakusgai jartzeko eginahalagatik.

PRIMERO: El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda la Reprobación del Presidente del Aula de Cultura y Portavoz del PNV D. Koldo Iturbe, por su empeño en exponer unas imágenes que dañan la sensibilidad de muchos getxotarras.

BIGARRENA: Getxoko Udalbatzarrak obra hori jendaurretik kentzea erabaki du, gure udalerriko herritar askoren sentsibilitatea iraintzen eta kaltetzen baitu.

SEGUNDO: El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda que se retire esta obra de la exposición publica, porque ofende y extorsiona la sensibilidad de muchos vecinos de nuestro municipio.

HIRUGARRENA: Mozio hau udalaren komunikabideetan jakinaraz dadila.

TERCERO: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Horretaz gain adierazten du mozioa ez dela egileak obra bat egiteko duen eskubidean sartzen, baina bai kritikatzen duela Getxoko bizilagunen sektore batentzako soilik erakusteak dakarren iraina; gai hori amaitutzat eman zitekeen obra bere lehenengo kokapenetik kendu zenean berriro beste leku batean erakusgai jarri izan ez balitz. Gaitzespena aurkeztu beharrak min ematen diola adierazten du, Koldo Iturbe zinegotzi ona dela uste baitu eta, gainera, obraren edukiarekin ez dagoela ados uste du.

Manifiesta también que la moción no entra en el derecho del autor a hacer un obra pero sí critica la ofensa que supone exponer la obra para un sector de los vecinos de Getxo, cuestión que se podía haber zanjado si cuando se retiró la obra de su primera ubicación no se llega a exponer en otro lugar. Indica que le duele presentar la reprobación porque cree que Koldo Iturbe es un buen concejal y opina además que no está de acuerdo con el contenido de la obra.

Alkateak esku-hartzen du EAJ-PNV taldeko bozeramaile gisa eta PP taldeak

El Alcalde interviene como portavoz del PNV y resalta la fijación que tiene el PP

Koldo Iturbe jaunarekin duen obsesioa azpimarratzen du, legegintzaldi bakoitzean gaitzespen bat aurkezten baitiote. Horrek politikoki esan nahi du Koldo Iturbe jaunak zuzentzen duen kudeaketa-arloa PP taldeak aintzat hartzen duela. Koldo Iturbe jaunari alkatearen eta bere taldearen babes guztia ematen diola adierazten du eta Koldo Iturbe jaunak kudeatzen dituen arloak bizilagunek asko baloratzen dituztela. Balorazio hori, bere iritziz, Koldo Iturberengana hedatzen da bai pertsona gisa bai udalbatzar-kide gisa. Mozio honek PP taldearen Kultur Etxearekiko errespetu falta adierazten duela uste du, erakunde horren batzordean ez baitute ezer galdetu; horrek agerian uzten du interesatzen zaien bakarra Gobernu Taldearen higadura politikoa dela. Getxo Arte ekimen positiboa dela gogorarazten du eta aurkeztu ziren 80 obren artean erakusketan jarri diren 50 obren hautaketa aditu entzutetsuek osatutako batzorde batek egin duela eta Gobernu Taldeak horien emaitza errespetatu egin duela, nahiz eta Getxoko hainbat bizilagunentzako obra hori iraingarria gerta daitekeela ulertu dezakeen, beren uste sendo erlijiosoak direla eta. Baina PP taldeak planteatzen duena onartuz gero, Getxoko beste bizilagun batzuen beste uste sendo demokratikoak ere irainduko lituzke. Obraren kokapena aldatu zenetik ez dela kexarik jaso adierazten du.

con Koldo Iturbe ya que en cada legislatura le plantean una reprobación, lo que políticamente indica que el área de gestión que dirige Koldo Iturbe es apreciada por el PP. Manifiesta el total apoyo del Alcalde y de su grupo a Koldo Iturbe e indica que las áreas que gestiona Koldo Iturbe tienen una gran valoración por parte de los vecinos; valoración que se extiende también en su opinión a Koldo Iturbe como persona y corporativo. Cree que la moción demuestra una falta de respeto del PP con el Aula de Cultura ya que en la junta de este organismo nada han preguntado; lo que evidencia que lo único que les interesa es el desgaste político del Equipo de Gobierno. Recuerda que Getxo Arte es una iniciativa positiva y la selección de las 50 obras expuestas sobre las 80 presentadas la realizó un comité de expertos de reconocido prestigio, cuyos resultados han sido respetados por parte del Equipo de Gobierno, aunque pueda entender y comprender que para algunos vecinos de Getxo la obra puede ser ofensiva debido a sus convicciones religiosas, pero si aceptara lo que plantea el PP también generaría una ofensa a otras convicciones democráticas de otros vecinos de Getxo. Informa también que desde que se traslado la ubicación de la obra no se ha recibido ninguna queja.

Arantza Gutierrez andreak bere esku-hartzea ankerkeria hitzaren definizioa irakurriz hasten du, mozioaren objektu den obra kalifikatzeko erabiltzen den hitza; bere ustez badira beste elementu batzuk herritar asko eta asko iraintzen dituztenak, esate baterako, udaletxean bandera gorri-horia jartzea, duela gutxira arte Osoko Bilkuran sinbolo erlijiosoak egotea, herritarren hizkuntza-eskubideak ez errespetatzea, monarkiaren

Arantza Gutiérrez inicia su intervención leyendo la definición del término atrocidad, término con el que se califica la obra de la moción, y estima que también hay otros elementos que ofenden a una gran mayoría de los ciudadanos como son la ubicación de la bandera rojigualda en la casa consistorial, la presencia hasta hace poco de símbolos religiosos en el pleno, el no respeto a los derechos lingüísticos de los ciudadanos, las referencias

erreferentziak, emakumearenganako errespetu falta, diktadura garaiko sinboloak, ingurumenarekiko errespetu falta eta abar. BILDU-ren asmoa ez dela sormen artistikoa mugatzea adierazten du eta artistenganako errespetua eskatzen du; beraz, mozioaren aurka bozkatuko dute.

monárquicas, la falta de respeto a la mujer, los símbolos de la época de la dictadura, la falta de respeto al medio ambiente, etc. Indica que BILDU no está por limitar la creación artística y pide respeto para los artistas por lo que se opondrán a la moción.

Agustin Ruiz jaunak adierazten du mozioaren berri jakin zuenean esamesa baino ez zela izango uste zuela eta mozioak denboran atzera egiten duela eta moral bikoitza dakarrela gogora uste du. PP-k bizilagunen sentsibilitateen ordezkaritza beretzat hartzea kritikatzen du eta mozioak zentsura dakarrela gogora esanez amaitzen du.

Agustín Ruiz manifiesta que cuando tuvo noticias de la moción creía que era un chascarrillo y cree que la moción retrocede en el tiempo y recuerda a la doble moral. Critica que el PP se arrogue la representación de las sensibilidades de los vecinos finalizando con que la moción recuerda a la censura.

Marisa Arrue andreak adierazten du alkateak ez dituela zinegotzi guztiak berdin tratatzen; izan ere Talde Popularrekoak ez direnei gaiarekin zerikusirik ez duen edozer gauza esaten uzten die, aldiz, PP taldekoei suposamendu hauetan atentzioa deitzen die. Sentsibilitate demokratikoagatik, obra bezeroek horrela eskatuta denda batetik kendu ondoren ez zuten beste leku batean berriro jarri behar. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeei galdetzen die zer pentsatuko ote luketen argazkia Sabino Aranarena edo Ramon Rubialena izan balitz. Berriro esaten du ez duela obra kritikatzen, baizik eta, kritikatzen duena Kultur Etxeak obra hori jendaurrean erakusgai jartzea dela.

Marisa Arrúe manifiesta que el Alcalde no trata igual a todos los concejales ya que a los que no son del Grupo Popular les deja decir cualquier cosa que nada tenga que ver con el tema mientras que a los del PP les llama la atención en estos supuestos. Opina que por sensibilidad democrática no deberían haberla vuelto a colocar después de que la obra se retirara de un comercio a petición de los clientes. Pregunta al PNV y al PSE-EE que pensaría si la foto sería de Sabino Arana o de Ramón Rubial. Insiste en que no critica la obra si no que por parte del Aula de Cultura se exponga públicamente.

Alkateak gogorarazten du mozioaren izenburua Koldo Iturberi gaitzespena dela, zuzenean pertsona bati zuzenduz. Kasu honetan, adierazpen-askatasunaren eta sentimendu erlijiosoa babesteko eskubidearen arteko interes-gatazka ematen dela deritzo eta kasu bakoitzean muga finkatzea ez dela erraza. Kasu honetan, Gobernu Taldea adituen irizpidean oinarritu da.

El Alcalde recuerda que la moción se titula reprobación a Koldo Iturbe dirigiéndose directamente a un persona. Opina que en este caso se produce un conflicto de intereses entre la libertad de expresión y el derecho a la protección del sentimiento religioso y no es fácil fijar el límite en cada caso. En este caso el Equipo de Gobierno se ha basado en el criterio de los expertos.

Marisa Arrue andreak adierazten du bizilagunek beren aurkakotasuna adierazi zutela eta horregatik kendu zela obra bere lehenengo kokapenetik eta mozioak kritikatzen duena beste denda batean berriro jarri izana dela, ikastetxe publiko baten aurrean; denda horrek berehala jarri zuen obra horrekin ez zuela zerikusirik adierazten zuen kartela. Moral bikoitzari dagokionez adierazten du Ruiz jaunak ikastetxe erlijioso batean egiten duela lan, zeina, guztiz errespetagarria iruditzen zaion. Koldo Iturberen gaitzespena eskatzen dute Kultur Etxeko lehendakaria delako, lehiaketa antolatzen duen erakundekoa.

Marisa Arrúe indica que los vecinos manifestaron su oposición y por ello se quito la obra de su primera ubicación y la moción lo que critica es que luego se volvió a colocar en otro comercio, en frente de un colegio público, comercio que se apresuró a poner un cartel para indicar que nada tenía que ver con la obra. En relación a la doble moral manifiesta que el señor Ruiz trabaja en un colegio religioso, lo cual le parece absolutamente respetable. Piden la reprobación de Koldo Iturbe por su condición de presidente del Aula de Cultura que es el organismo que organiza el certamen.

Alkateak esku hartzen du Marisa Arrue andreari berriro ere pertsonari buruzko aipamenak egiten ari dela adierazteko, esaterako, udalbatzar-kide sozialistaren lan-jarduerari buruzkoak. Marisa Arrue andreari galdetzen dio obra berriro erakusgai jarri ez eta horrek dakarren zentsuragatik kexak jaso izan balituzte zer egin beharko ote zuketen. Adituen irizpideari jarraitu diotela eta errespetatu eta babestu egiten dutela berresten du. Erakusketa lekuz aldatu zenetik ez dela kexarik jaso errepikatuz amaitzen du.

El Alcalde interviene para indicar a Marisa Arrúe que vuelve a incidir en comentarios sobre personas como el realizado acerca de la actividad laboral del corporativo socialista. Pregunta a Marisa Arrúe si tal y como plantea el Grupo Popular no hubieran vuelto a colocar la obra y hubieran tenido quejas motivadas en la censura que ello supone qué es lo que tendrían que hacer. Se reafirma en que han seguido el criterio de los expertos que respetan y amparan. Finaliza insistiendo en que desde que se cambio de lugar la exposición no se ha recibido ninguna queja.

Agustin Ruiz jaunak adierazten du moral bikoitzaren irizpideak Talde Popularreko bozeramaileak adierazitako argudioei buruzkoak direla eta bere hitzek bere lan-egoeran inolako ondoriorik ez izatea itxaro duela.

Agustín Ruiz indica que los criterios de la dobla moral se refieren a argumentos como los que ha indicado la portavoz del Grupo Popular y que espera que sus palabras no tengan repercusión sobre su situación laboral.

Arantza Gutierrez andreak adierazten du Talde Popularrak Osoko Bilkurara bere iritziz udalerriko bizilagunen sentsibilitatea mintzen duten gaiak ekarri dituela eta horrelako jardueren aurrean BILDU taldeak ere bizilagunen sentsibilitatea mintzen duten bestelako

Arantza Gutiérrez manifiesta que el Grupo Popular trae al Pleno cuestiones que en su opinión dañan la sensibilidad de vecinos del municipio y que ante este tipo de actuaciones BILDU también puede traer otro tipo de actuaciones que daña la sensibilidad de vecinos.

jarduerak ekar ditzakeela.

Mozioa bozkatu egiten da eta ez da onartzen PP taldearen aldeko 9 boto eta EAJ-PNV, BILDU eta PSE-EE taldeen aurkako 16 boto lortzean.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 9 votos a favor: PP, 16 votos en contra PNV, BILDU, PSE-EE.

**123.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GOBERNU TALDEARI ERANTZUKI EGITEA ETA GETXO ANTZOKIA PROIEKTUKO 5. FASEA EZEZTATZEA.**

**123.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ REPROCHE AL EQUIPO DE GOBIERNO Y ANULACIÓN DE LA FASE 5 DEL GETXO ANTZOKIA.**

Eduardo Andrade jaunak mozioa irakurtzen du. Proiektua gezurretan, irrealitateetan eta osoko bilkuraren aginduen ez-betetzeetan oinarrituta dagoela dio eta egoera horien berri ematen du. Proiektua etorkizuna ziurtatuko duen bideragarritasun-planik gabe egin dela adierazten du, inguruko espazio librea estutzen duela, ez dela nahikoa emanaldi handiak hartzeko, besteak beste, jazza eta folka, eta 15 bizilagunek soilik erabiltzen duten aparkalekua duela, zeina, ezin dela txandakako aparkaleku gisa erabili. Plazaren proiektuak oztopo arkitektonikoak bere horretan mantentzen dituela eta agindutako plaza argi eta irekia egiteko emandako hitza ez duela betetzen adieraziz amaitzen du.

Eduardo Andrade da lectura a la moción. Indica que el proyecto está basado en mentiras, irrealidades e incumplimiento de mandatos plenarios dando cuenta de estas situaciones. Manifiesta que el proyecto se ha realizado sin un plan de viabilidad que garantice el futuro, que estruja el espacio libre del entorno y que no es suficiente para albergar grandes eventos como el jazz y el folk y tiene un aparcamiento que sólo utilizan 15 vecinos y que no es posible ser utilizado para rotación. Finaliza indicando que el proyecto de plaza mantiene las barreras arquitectónicas e incumple las promesas de una plaza diáfana y abierta.

Joseba Arregi jaunak gai hori konta ezin ahala alditan eztabaidatu dela eta proiektua Osoko Bilkuran 8 bider baliozkotu dela gogorarazten du. Planeamenduan inposatutako eraikina izateko erabakiari dagokionez, PP-k aldeko botoa birritan eman zuela eta espazioen erabilera-eremua zehazten duen hondeaketa-fasean, PP taldea abstenitu egin zela adierazten du eta, bestetik, parkinga egitearen alde egon zirela eta abar, nahiz eta gero beren iritzia aldatuz

Joseba Arregi recuerda que este tema se ha discutido infinidad de veces y que el proyecto ha sido validado 8 veces en el Pleno. En relación a la determinación como edificio impuesto en el planeamiento el PP votó dos veces a favor y en la fase de excavación que define el ámbito de utilización de los espacios el PP se abstuvo, en tanto que apoyaron también la realización del parking, etc. aunque luego fueron cambiando de opinión. Pasaron de valorarlo como un proyecto muy bueno a

joan den. Oso proiektu on gisa baloratzetik gaindimentsionatuta zegoen proiektua izatera pasa zen eta, hortik aurrera, faraoniko deitzera eta, hortik, proiektuaren guztiz aurka egotera. Mozioak urbanizazioa ez egiteko eskatzen du eta horrek ez du inolako zentzurik. Proiektua amaierako fasean dagoela adierazten du eta bere ustez PP taldea hasierako jarrerara itzuliko da eta inaugurazioan presente egongo dira.

un proyecto sobredimensionado para luego denominarlo como faraónico, y a partir de ahí a la oposición total. La moción pide que no se haga la urbanización, lo cual no tiene ningún sentido. Indica que el proyecto está en una fase final y cree que el PP finalizará volviendo a su postura inicial y estarán presenten en la inauguración.

Bingen Saitua jaunak adierazten du BILDU taldeak mozioa babestuko duela, haren edukiarekin bat baitatoz. Gobernu Taldeak hain garrantzitsua den proiektua Udaleko gehiengoen iritziaren aurka egikaritzea kritikatzen du. Osoko Bilkurak, uztailean, proiektuari buruzko funtsezko erabakiak hartuko zituena organoak izan beharko zukeela erabaki zuen, baina Gobernu Taldeak ez dio Osoko Bilkurari jaramonik egiten.

Bingen Saitua manifiesta que BILDU apoyará la moción porque están de acuerdo con su contenido. Critica que el Equipo de Gobierno ejecute un proyecto tan importante en contra de la opinión mayoritaria del Ayuntamiento. Recuerda que el Pleno acordó en julio que debiera de ser el órgano que tomara las decisiones fundamentales del proyecto, pero el Equipo de Gobierno no hace caso al Pleno.

Eduardo Andrade jaunak erantzuten du mozioaren xedea proiektuaren faseen onarpena Osoko Bilkurara ekartzea dela eta ez urbanizatu gabe uztea. Planteatzen den urbanizazioaren diseinuarekin ez dagoela ados errepikatzen du eta, gainera, ez du hasieran onartutakoa eta zabaldutakoa errespetatzen. Aparkalekuan plaza libreak egotea eta horiek txandakako aparkaleku gisa ezin erabili izana kritikatzen du. Amaitzen du esanez, Talde Popularrari Antzokiaren eta Musika Eskolaren proiektuak ondo iruditzen zaizkiola, baina ez proiektu zehatz horiek, zentzugabekoak baitira eta, gainera, horiek mantentzea asko kostako da eta bideragarritasun ekonomikoko proiekturik ez dute.

Eduardo Andrade replica que la moción pretende que se traiga la aprobación de las fases del proyecto al Pleno y no que no se urbanice. Insiste en que no está de acuerdo con el diseño de la urbanización que se plantea y que además no respeta lo que inicialmente se había aprobado y divulgado. Critica que haya plazas libres en el parking y que no puedan dedicarse a aparcamiento en rotación. Finaliza indicando que al Grupo Popular le parece bien el proyecto del Antzokia y la Escuela de Música pero no esos proyectos concretos que son una aberración y que van a costar mantener y no cuentan con estudio de viabilidad económica.

Joseba Arregi jaunak adierazten du diseinatutako plaza irisgarria dela; plaza aditu-talde batek diseinatutakoa dela eta Gobernu Taldeak haien iritzia

Joseba Arregi manifiesta que la plaza diseñada es accesible y que está diseñada por expertos cuya opinión respeta el Equipo de Gobierno.

errespetatzen duela.

Eduardo Andrade jaunak Gobernu Taldeak plaza argia agindu zuela errepikatzen du eta proiektuak desnibelak, ilunguneak, kioskoa desagertzea eta abar aurreikusten jarraitzen duela. Aparkalekuaren arazoa azpimarratzen du 100 partzela librerekin eta mozioaren xedea Getxo Antzokiaren faseak Osoko Bilkurara ekartzea dela onartuak izan daitezen gogorarazten du.

Eduardo Andrade insiste en que el Equipo de Gobierno prometió una plaza diáfana y el proyecto mantiene los desniveles, puntos oscuros, desaparición del quiosco, etc. Insiste en el problema del aparcamiento con 100 parcelas libres y recuerda que el objeto de la moción es que las fases del Getxo Antzokia vengan al Pleno para su aprobación.

Bingen Saitua jaunak adierazten du BILDU mozioari atxikitzen zaiola, erabaki estrategikoak Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartu behar direla berresten baitu. Hori da Osoko Bilkurak behin eta berriz erabaki duena eta Gobernu Taldeak ez du jaramonik egiten.

Bingen Saitua manifiesta que BILDU se adhiere a la moción ya que se ratifican en que las decisiones estratégicas deben debatirse y aprobarse en el Pleno. Eso ha decidido varias veces el Pleno y el Equipo de Gobierno no hace caso.

Joseba Arregi jaunak erantzuten du proiektu hau 9 bider pasa dela Osoko Bilkuratik eta proiektua ezin dela bere egikaritzaren erdian geldiarazi.

Joseba Arregi replica que este proyecto ha pasado 9 veces por el Pleno y no se puede detener el proyecto a mitad de su ejecución.

Mozioa bozkatu eta onetsi egiten da PP eta BILDU taldeen aldeko 13 boto eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen aurkako 12 boto lortzean.

Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 13 votos a favor: PP, BILDU, 12 votos en contra PNV, PSE-EE.

Ondorioz, honako mozio hau onesten da:

En consecuencia, es aprobada la siguiente moción:

Udalaren osoko bilkuran bertan hitzez hitz esan bazen ere "Getxo Antzokiko eraikuntza-fase guztiak osoko bilkuran onetsiko zirela", haietako bat bera ere ez dela osoko bilkuran aztertu egiaztatzen ari gara.

A pesar de que en el propio pleno del Ayuntamiento, se dijo de forma literal, que "todas las fases de construcción del Getxo Antzokia, se iban a aprobar por el pleno", estamos constatando como ninguna de éstas ha venido al pleno.

Udalbatzarraren bizkarrez aritzeaz gain, haren aurka aritzeko gobernuko talde horrek erakutsitako jokabidearen aurrean, udal-talde honek udalbatzarraren eskumenak aldarrikatzeko beharra ikusi du eta haiek eskatzera gobernuko taldeak

Esta actitud del equipo de gobierno de actuar no solo a espaldas del pleno sino incluso, en su contra, ha obligado a este grupo municipal a reivindicar las competencias plenarias y reclamarlas cada vez que el equipo de gobierno ha

Getxo Antzokiaren eraikuntza-fase bat esleitu duen aldi bakoitzean.

adjudicado una fase de construcción del Getxo Antzokia.

Gogoratu beharra dago 2012ko urriaren 30ean egin zen Udal honetako osoko bilkuran honako hau onartu zela gehiengo absolutuz:

Debemos recordar que el Pleno Municipal de este Ayuntamiento celebrado el pasado 30 de Octubre de 2012 aprobó por mayoría absoluta de sus miembros

LEHENENGOA. Getxoko Udalbatzarrak Getxo Antzokiko obrak esleitzeko erabaki hau ukatzen eta gaitzesten du, herriaren gehiengo absolutuaren aurka hartuta eta Udalbatzar honetan adierazita dagoena.

PRIMERO. El Pleno Municipal del Ayuntamiento de Getxo, muestra su rechazo y repulsa al presente acuerdo de adjudicación de obras del Getxo Antzokia, tomado en contra de la mayoría absoluta del pueblo reflejado en este Pleno.

BIGARRENA. Tokiko Gobernu Batzordearen Erabakia baliogabetzea, Getxo Antzokiko obren fase honen esleipenari dagokionez

SEGUNDO. Que se anule el Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de de adjudicación de la presente fase de obras del Getxo Antzokia...

HIRUGARRENA. 2012ko uztailaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakia azpimarratzea; haren arabera, Getxoko Udalbatzarrak onetsiko ditu Getxo Antzokiaren ondorengo eraikuntza-faseak eta inbertsioak.

TERCERO. Reiterar el acuerdo plenario de fecha 27 de Julio de 2012 que determinó, que sea el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el que apruebe las sucesivas fases de construcción e inversiones del Getxo Antzokia.

LAUGARRENA Mozio hau udalaren komunikabideetan jakinaraz dadila.

CUARTO Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Udalbatzarrak, beraz, udal-ordezkaritzaren organo gorena izanik, gobernuko taldeari agindu zion Antzokiko faseak onesteko erabaki guztiak baliogabe zitzala, aldebakarrez hartutakoak zirelako, eta etorkizuneko Getxo Antzokiko fase guztiak udalbatzar honetara ekar zitzala, onar daitezen.

El Pleno Municipal, por lo tanto, como órgano supremo de representación municipal ordenó al equipo de gobierno anular todos los acuerdos de aprobación de fases del Antzoki, adoptados de forma unilateral y traer a este pleno, para su aprobación, todas las fases del futuro Getxo Antzokia.

Gaur egun salatu behar dugu, 2013ko urriaren 8ko Tokiko Gobernu Batzordearen 365. erabakiz, Getxoko Antzokiko 5. Faseari dagokion proiektua onestea erabaki dela: Urbanizazioa 2.987.537,78 €, BEZ barne.

En el día de hoy debemos denunciar que, por acuerdo número 365 de la Junta de Gobierno Local del pasado día 8 de Octubre de 2013 se ha determinado aprobar el proyecto correspondiente a la Fase 5 del Getxo Antzokia: Urbanización con un presupuesto de 2.987.537,78€ iva

incluido.

Beste behin gobernuko taldeak udalbatzarrean ordezkatzen den eta hauteskundeetan adierazitako herriaren borondateari ez dio kasurik egin; bere alderdiaren borondatearen alde eta haren mesedetan egiten du lan, eta hori, demokrazian, erabat gaitzesgarria da.

Una vez más el equipo de Gobierno ignora la voluntad popular expresada en las elecciones y representada en el pleno y trabaja en pro y para su voluntad partidista, lo cual en democracia debe ser totalmente reprochable.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Popular Udal Taldeak ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular de Getxo presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA. Getxoko Udalbatzarrak Antzokiko 5. fasea kontratatzeko espedientearen hasiera onesteko erabakia ukatzen eta gaitzesten du, herriaren gehiengo absolutuaren aurka hartuta eta Udalbatzar honetan adierazita dagoena.

PRIMERO. El Pleno Municipal del Ayuntamiento de Getxo, vuelve a mostrar su rechazo y repulsa al acuerdo de aprobación del inicio del expediente de contratación de la fase 5 del Antzokia, tomado en contra de la mayoría absoluta del pueblo reflejado en este Pleno.

BIGARRENA. 2013ko urriaren 8ko Tokiko Gobernu Batzordearen 365. Erabakia baliogabe dadila, Getxo Antzokiaren 5. fasea kontratatzeko espedientearen hasiera onartzeari buruzkoa, eta osoko bilkurara ekar dadila onartu ahal izateko.

SEGUNDO. Que se anule el Acuerdo 365 de la Junta de Gobierno Local de fecha 8 de Octubre de 2013 de aprobación del inicio de expediente de contratación de la fase 5 del Getxo Antzokia y se traiga a pleno para su aprobación.

HIRUGARRENA. 2012ko uztailaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakia azpimarratzea; Haren arabera, Getxoko Udalbatzarrak onetsiko ditu Getxo Antzokiaren ondorengo eraikuntza-faseak eta inbertsioak.

TERCERO. Reiterar el acuerdo plenario de fecha 27 de Julio de 2012 que determinó que sea el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el que apruebe las sucesivas fases de construcción e inversiones del Getxo Antzokia.

LAUGARRENA. Mozio hau udalaren komunikabideetan jakinaraz dadila.

CUARTO Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Agustin Ruiz udalbatzar-kideak irten egiten du.

Sale el corporativo Agustín Ruiz.

**124.- BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ALOKAIRUZKO ETXEBIZITZA SOZIALA.**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzen du, hots, honela dio:

Egunkarietan irakurtzen ditugun rankingek behin eta berriz berresten dute herri honen gaitzetako bat: Getxo etxebizitza garestiena eta, beraz, eskuraezinena duen herrien artean dago. Euskal Herriko rankingetan zein Espainiar Estatuko beste herri eta hiriekin konparatzen gaituztenekin, datuak argiak dira.

2012an Fotocasak argitaratutako azterketaren arabera, Getxo Espainiar Estatuko bigarren herri garestiena da, bigarren eskuko salmentako etxebizitzan (metro koadroa 4.338 eurotan zegoen azterketaren arabera).

Alokairuan ez gara gutxiago. 2013ko otsailean argitaratutako datuen arabera, EAE alokairu garestienak ditugu, metro koadroa 11,63 eurotan dagoelarik.

Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren Emantzipazioaren Behatokiak egindako azken azterketaren arabera, Hego Euskal Herriko 29 urtetik beherako gazteen %19,7a soilik bizi da gurasoen etxetik kanpo.

Hutsik dauden etxebizitzak alokairu sozial eta eskuragarrietan jartzeko Eusko Jaurlaritzako Bizigune programaren web gunean, ez dago programa honen barruan dagoen Getxoko etxebizitzarik, askoz txikiagoak diren Sopela, Durango eta bestelako herrietan, hamarnaka dauden

**124.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ VIVIENDAS EN ALQUILER SOCIAL.**

Maitane Nerekan da lectura a la moción que indica lo siguiente:

Constantemente, los ranking de los periódicos que leemos nos confirman uno de los grandes males de este pueblo: Getxo se encuentra entre los pueblos con vivienda más cara y, por tanto, más inaccesible. Los datos lo dejan claro, tanto los de los ranking a nivel de Euskal Herria como los datos que nos comparan con el resto de pueblos y ciudades del Estado Español.

Según los estudios publicados en 2012 por Fotocasa, Getxo es el segundo municipio más caro del Estado Español en lo que respecta a la venta de vivienda de segunda mano (según el estudio el m² estaba en 4.338 €)

En el alquiler no somos menos. Según los datos publicados en febrero de 2013, tenemos los alquileres más caros de toda la CAV, 11.63€/ m².

Según el último estudio del Observatorio del Consejo de Emancipación de la Juventud de España, tan sólo un 19,7% de los jóvenes de Hego Euskal Herria, menores de 29 años, vive fuera de casa de sus padres.

En la página Web del programa Bizigune del Gobierno Vasco, en la que se publican las viviendas vacías y sociales que se encuentran disponibles, no existe ninguna vivienda en Getxo, mientras podemos encontrar decenas de ellas en pueblos más pequeños como Sopela, Durango y otros.

bitartean.

Getxon oraindik ere 2009. urtean PSEk eta EAJk adostutako "Etxebizitza plana hiri-lurzoruan" delakoak markatzen du Udal honen etxebizitza politika, nahiz eta hau ere, epeetan behintzat, ez da inondik inora betetzen ari.

En Getxo, es el plan de vivienda pactado en el año 2009 entre el PSOE y el PNV quien marca la política de vivienda del municipio, a pesar de que éste, al menos en lo que a plazos se refiere, no se está cumpliendo.

Getxo.net web guneko Etxebizitza atala zabaltzean horrelako titularrak irakurri behar ditugu: "Udalak gutxienez 150 babestutako etxebizitza egingo ditu 2010 eta 2012 urte artean Alango auzoan, Algortan, herriko 35 urtez azpiko gazteei errentan emateko".

Esto son los titulares que leemos al abrir la sección de vivienda de la Web Getxo.net: "El Ayuntamiento construirá como mínimo 150 viviendas de protección entre el año 2010 y el 2012 en el barrio de Alango (Algorta), pisos que se alquilarán a jóvenes del pueblo menores de 35 años"

Hau da aurkitzen dugu lehen gezurretako bat, 2013an bagaude ere ez 35 urtetik beherakoek ezta gainontzeko babestutako alokairuzko etxebizitza eskatzaileek ere, ez dutelako promozio bat bera ere ikusi Getxon.

Esta es una de las primeras mentiras que nos encontramos, pues estamos en 2013 y ni los menores de 35 años ni el resto de solicitantes de vivienda de alquiler social han visto una sola promoción en Getxo.

Bestalde, Udal Gobernutik irtenbide magikotzat saldu nahi izan dizkiguten Alango eta Ormazako azken bi promozioen datuek argi erakusten dute: salmentako Babes Ofizialeko Etxebizitza, eskaintzen den baldintzetan, gaur egun ez da etxebizitza eskubidea getxotar guztiei zabaltzeko benetako alternatiba. Izan ere, Alangon 33 etxebizitza zozketatu eta "irabazleen" %60ak baino gehiagok uko egin izan behar dio etxebizitzari, exijitutako baldintzetara heldu ezinik. Ormazan egoera antzekoa da.

Por otra parte, los datos de las últimas promociones de Alango y Ormaza, que nos han querido vender como mágica solución, lo dejan bien claro: las viviendas en venta de Protección Oficial, en las condiciones que las ofrecen, no son una alternativa real que asegure a los getxotarras el derecho a una vivienda. De hecho, en Alango se sortearon 33 viviendas y más de un 60% de los "agraciados" han tenido que rechazar la vivienda, por la imposibilidad de llegar a las condiciones que se exigen. En Ormaza más de lo mismo.

Bitartean, jarraituko dugu rankingetako lehen postuak betetzen esanez adibidez, Antzoki "erraldoia eta modernoena" duen herria garela, baina babestutako alokairuzko etxebizitza sozialean gutxien inbertitu duena. PMSko dirua, lurrak erostera eta etxebizitzak egitera bideratu behar den dirua, Getxo Antzoki erraldoi

Mientras tanto, continuaremos en los primeros puestos del ranking diciendo que somos el pueblo con el Antzoki más grande y moderno pero el que menos invierte en viviendas de alquiler social. El dinero del PMS, que debería ir destinado a la compra de terrenos y a la construcción de viviendas, lo hemos gastado en el

bat egiten gastatu dugu eta Gobernu Taldeak ez du totel egiten hori baieztatzean, gazteek eta ez hain gazteek herritik alde egin behar izan duten bitartean.

gigantesco Getxo Antzokia. El Equipo de Gobierno no tartamudea al afirmarlo, mientras que jóvenes y no tan jóvenes del pueblo han tenido que abandonar el municipio por falta de vivienda accesible.

2009. urteko Etxebizitza Planak ez dio inondik inora erantzuten getxoztarrok momentu honetan daukagun etxebizitza beharrari eta egoera sozio-ekonomikoari. Datuek erakusten dute alokairuzko etxebizitza dela momentu honetan "soziala" den bakarra. Premiazko beharra dugu, etxebizitza eskubide eta ez "luxu" bezala jartzen duen politika bat diseinatu eta martxan jartzea eta horretarako beharrezkoa da indarrean dagoen Etxebizitza Plana birpentsatzea. Beharrezkoa da ere baliabide ahalik eta gehien eta borondate politiko guztia horretara bideratzea.

El Plan de vivienda del año 2009 no da respuesta a las necesidades que tenemos en este momento los getxotarras en cuanto a vivienda en la situación socio-económica actual. Los datos reflejan que la vivienda en alquiler es la única "social" en este momento. Es necesario diseñar y poner en marcha una política de vivienda que ponga la vivienda como un derecho esencial y no como un artículo de lujo, y para ello es necesario repensar el Plan de vivienda vigente. Igualmente es necesario dirigir a este fin los máximos recursos disponibles así como toda la voluntad política.

Horregatik, ondoko proposamena egiten diogu Osoko Bilkurari onartua izan dadin:

1. Getxoko Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio, indarrean dagoen Etxebizitza Planaren inguruko eztabaida zabaldu dezala HAPOaren berrikusketaren barruan eta, beraz, horretan dihardun Lantaldean eztabaidatu ondoren, udalak datozen urteotan eraman behar duen etxebizitza politika birdefinitzeko.
2. Getxoko Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio, bigarren eskuko zein berria den alokairuzko etxebizitza soziala bultzatzeko ahalik eta neurri gehien hartu ditzala berehala.
3. Getxoko Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio, etxe hutsen

Por todo ello, hacemos la siguiente propuesta al Pleno del Ayuntamiento, para que sea debatida y aprobada:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita al Equipo de Gobierno que, abra el debate sobre el actual Plan de Vivienda de Getxo y que esto se trabaje dentro de la revisión del PGOU y en extensión dentro del Lantalde, para que se redefina la política de vivienda de Getxo para los próximos años.
2. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita al Equipo de Gobierno que tome todas las medidas que estén en su mano para impulsar inmediatamente la vivienda de alquiler social tanto de nueva construcción como usada.
3. El Pleno del Ayuntamineto de Getxo solicita al Equipo de

errolda gaurkotua egin dezan.

4. Getxoko Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio hutsik dauden etxebizitzak alokairuzko etxebizitza sozialeko programetan sartzeko bere eskuetan dauden neurri guztiak hartu eta baliabide guztiak jar ditzan.

Gobierno que haga un censo actualizado de vivienda vacía.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita al Equipo de Gobierno que tome todas las medidas y ponga todos los recursos posibles para que las viviendas vacías de Getxo se incorporen a programas de vivienda social en alquiler.

Gai hau Osoko Bilkurara ekartzen duten lehenengo aldia ez dela adierazten du, etxebizitzarena baita udalerrian dagoen arazo handienetako bat eta horren erantzulea EAJ-PNV dela dio, azken 30 urtetan gobernatu baitu gai horri dagokionez inolako jarduerarik gauzatu gabe. Azken zozketetan uko egite kopuru handia eman dela adierazten du, esleipendunak ez baitira eskatzen zaizkien baldintzak betetzera iristen. Lotsagarria deritzo etxebizitza-plana ez egikaritzea eta horren edukia denborazko errealitatera ez egokitzea. Lurzoruaren udal-ondarearen dirua Getxo Antzokira bideratzen dela eta ez etxebizitza sozialak sustatzera kritikatzen du, batez ere, alokairu-erregimenean izan beharko luketenak, hori baita egungo egoera ekonomikoak eskatzen duena. Udalak etxebizitza-arloan dituen eskuduntzak ez egikaritzea kritikatzen du, ez du etxebizitza hutsen erregistrorik egiten, ez ditu etxebizitza hutsak zerga gehiagorekin zergatzen eta abar. Badaki Gobernu Taldearen erantzuna lanean dihardutela baina arlo zaila dela, hirigintzako izapideak motelak direla izango dela, baina, hala eta guztiz ere, arazoaren larritasuna azpimarratzen jarraituko dutela dio.

Indica también que no es la primera vez que traen esta cuestión al Pleno ya que la vivienda es uno de los mayores problemas del municipio y responsabiliza de ello al PNV que ha gobernado los últimos 30 años sin realizar ninguna actuación en este tema. Incide en que en los últimos sorteos se producen un gran número de renuncias porque los adjudicatarios no llegan a cumplir los requisitos que se les exige. Le parece vergonzoso que no se ejecute el plan de vivienda y que se mantenga sin adecuar el contenido del mismo a la realidad temporal. También critica que el dinero del patrimonio municipal del suelo se dedica al Getxo Antzokia y no a la promoción de viviendas sociales, sobre todo a aquellas que han de ser en régimen de alquiler, que es lo que demanda la situación económica actual. Critica que el Ayuntamiento no ejercita las competencias que tiene en materia de vivienda, que no realiza un registro de las viviendas vacías, que no grava las viviendas vacías con más impuestos, etc. Sabe que la respuesta del Equipo de Gobierno va a ser que están trabajando, que es un ámbito difícil, que las tramitaciones urbanísticas son lentas, pero pese a ello seguirán insistiendo por la gravedad del problema.

Joseba Arregi jaunak, Gobernu Taldearen izenean, adierazten du egun diagnostikoa argia dela eta orain dela erabakitzeko unea ulertzen dutela, baina etxebizitzaren gaia

Joseba Arregi, en nombre del Equipo de Gobierno, indica que entienden que el diagnóstico es claro actualmente y ahora toca decidir aunque reconoce que el tema

ez dela azkar ebatziko aitortzen du. Etxebizitza-politika egikaritzeko esparrua HAPO dela adierazten du eta egungo HAPO berrikusten ari direla eta berria ez dela 2015 baino lehen indarrean sartuko. Gaur egungo egoeran, kudeaketak lurzoru hiritarrera mugatu behar du eta Gobernu Taldea PSE-EE taldearekin akordio batera iritsi zen, non, lurzoru hiritarrean jarduteko aukerak jasotzen diren. Osoko Bilkurari aurkeztu zaizkion ekimenak, etxebizitza-plana egikaritzeko HAPOren aldaketak zekartzatenak, ez direla onartu ere gogorarazten du. Etxebizitza hutsei dagokienez, horiek okupatu gabe daudenetatik bereiztu behar direla deritzo, zeinak, gainera, Getxon berariazko ezaugarriak dituzten. Indarrean dagoen HAPOak etxebizitza babestuari dagokionez ahalbidetzen duena lurzoru hiritarrera mugatzen dela eta HAPO aldatzea beharrezkoa ez den jarduera haietan jarduten ari direla errepikatzen du. Azken urteetako etxebizitza askeen eta babestuen eraikuntzari buruzko datuak emanez amaitzen du.

de la vivienda no es de resolución rápida. Manifiesta que el PGOU es el marco para ejecutar la política de vivienda y el actual está en revisión y el nuevo no estará en vigor antes del 2015. En la situación actual la gestión ha de centrarse en el suelo urbano y el Equipo de Gobierno llegó a un acuerdo con el PSE-EE que recoge las posibilidades de actuación en el suelo urbano. Recuerda también que las iniciativas que se han presentado al Pleno, que suponía modificaciones del PGOU para ejecutar el plan de vivienda, no han sido aprobadas. Respecto a las viviendas vacías estima que hay que distinguir de las desocupadas y que además en Getxo tienen características específicas. Insiste en que lo que el vigente PGOU posibilita de vivienda protegida se limita al suelo urbano y que en aquellas actuaciones que no es necesario modificar el PGOU se está actuando. Finaliza dando datos de construcción de vivienda libre y de protección de los últimos años.

Luis Almansa jaunak adierazten du etxebizitzara sarbidearen gaia arazo oso sentsiblea dela eta etxebizitza-planak babes publikoko etxebizitzaren eraikuntzaren sustapenari, bereziki, alokairu-erregimenean, ematen dion garrantzia azpimarratzen du. Mozioari dagokionez, lehenengo puntuak etxebizitza-planari buruzko eztabaida ireki dadila planteatzen du eta etxebizitza-plana plan irekia dela adierazten du. Bigarren puntuari dagokionez, mozioak alokairu sozialeko etxebizitzarako neurriak sustatzea eskatzen du, planean bertan jasota dagoen gaia, jarduera bakoitzean etxebizitza-mota zehazten baita. Hirugarren puntuari dagokionez, jada betetzen ari da eta laugarrena ere etxebizitza-planean sartuta dago. BILDU taldeak mozioa ez duela etxebizitza-plana

Luis Almansa manifiesta que el tema del acceso a la vivienda es un problema muy sensible y destaca la importancia que el plan de vivienda da al impulso de la construcción de vivienda de protección pública, especialmente en alquiler. Respecto a la moción, le primer punto plantea que se abra el debate sobre el plan de vivienda, e indica que el plan de vivienda es un plan abierto. En relación al segundo punto, la moción solicita que se impulsen medidas para la vivienda de alquiler social, cuestión que está ya recogido en el propio plan ya que en cada actuación se define el tipo de vivienda. En relación al tercer punto se está ya cumplimentando y el cuarto también está en el plan de vivienda. Cree que BILDU no ha traído la moción para mejorar el plan de vivienda sino para tumbarlo y romper

hobetzeko ekarri uste du, baizik eta, plana zapuzteko eta alderdi sinatzaileen arteko akordioa hausteko, ezer zehatzik proposatu gabe. Mozioan dena berrikuspenera igortzen da, horrek esan nahi du HAPO berria onartu arte ezin dela etxebizitza babestuaren gaian jardun; planteamendu hori ez dute partekatzen, beraz, aurka bozkatuko dute.

el acuerdo entre los partidos firmantes sin proponer nada concreto. En la moción se remite todo a la revisión, lo que supondría que hasta que se apruebe el nuevo PGOU no se puede actuar en vivienda protegida, planteamiento que no comparten por lo que votarán en contra.

Iñaki Gamero jaunak adierazten du BILDU taldearen mozio bati esker, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek beren etxebizitza-planaren propaganda egin dutela. Plan hori kimera bat dela deritzo. Etxebizitzei uko egiteari dagokionez, Etxebide-ren datuak ematen ditu eta Getxon antolakuntza egoki bat falta dela kritikatzen du; kudeaketan gehiegizko moteltasuna ematen da, aurrekontu-jarduerarik eza eta etxebizitza-plana ezin da gauzatu. Alangoko promozioak 10 urte daramatzala izapidetan adierazten du, obrak atzerapen handia dutela eta etxebizitza-plana ezerezean uzten dutela.

Iñaki Gamero manifiesta que gracias a una moción de BILDU el PNV y el PSE-EE han hecho propaganda de su plan de vivienda. Plan que considera que es una quimera. Respecto a las renuncias a viviendas da datos de Etxebide y critica que en Getxo falta una adecuada planificación, en la gestión existe una excesiva lentitud, una carencia de actuaciones presupuestarias y que el plan de vivienda no es realizable. Manifiesta que la promoción de Alango lleva 10 años en trámites, las obras llevan mucho retraso y hacen que el plan de vivienda sea humo.

Maitane Nerekan andreak adierazten du Getxon uko-egite gutxiago ematen dela eskainitako etxebizitzak oso urriak direlako. Etxebizitza-beharra eguneratuta identifikatzea eskatzen du. Etxebizitzaren problematika ez dela hirigintzako planteamendu soila deritzo, baizik eta soziala, eta hirigintza motela dela aitortzen du, baina, EAJ-PNV taldeak 30 urte daramatza gobernatzen Getxon eta ez du gaian aurrera egin.

Maitane Nerekan indica que en Getxo hay menos renuncias porque existen muy pocas viviendas ofertadas. Pide que se identifique la necesidad de vivienda de forma actualizada. Opina que la problemática de vivienda no es un planteamiento solamente urbanístico sino social y reconoce que el urbanismo es lento pero que en PNV lleva 30 años gobernando en Getxo sin que se haya avanzado en el tema.

Joseba Arregi jaunak PP taldea kritikatzen du Osoko Bilkuran etxebizitzari buruz planteatutako guztiaren aurka agertu baita. Alangoko etxebizitzei dagokienez, Talde Popularrak adierazitako epea zuzentzen du. HAPO onartzeko, Osoko Bilkuran adostu beharko dela gogorarazten du. BILDU taldeari adierazten dio eskatzen duenarekin ados

Joseba Arregi critica al PP porque se ha opuesto a todo lo que se ha planteado en el Pleno en relación con la vivienda. Respecto a las viviendas de Alango corrige el plazo que ha manifestado el Grupo Popular. Recuerda que el PGOU habrá que acordarlo en el Pleno para su aprobación. A BILDU le indica que puede estar de acuerdo con lo que pide pero que hay que

egon daitekeela, baina, planteamenduetan errealista izan behar dela.

ser realista en los planteamientos.

